Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Ruiz de Gordoa Martinez de Albeniz

Asparrena, Araba (1966)



Aurkibidea

Biografia



1966an jaio zen Araian. Guraso biak araiarrak zituen. Oinarrizko eskolara Araiara joan zen, eta gero Gasteizera. Kontabilitate Ikasketak eta Musika Ikasketak egin zituen, azken hauek Gasteizen, Bilbon eta Madrilen. Bueltatutakoan, Lazkaoko barnetegian egon zen euskara ikasten. Txikitatik izan dute Felixek eta anaiek musikazaletasuna, aitak trikitia jotzen baitzuen igandero. Joselu anaia musika talde bateko kide zen Altsasun, eta distantzia zela eta, 1977an anaiek erromeria talde bat sortzea erabaki zuten: "Joselu eta anayak", ondoren "Joselu Anayak" izenez ezagunagoa egingo zena. Taldeko bateria jotzailea da Felix. Euskaraz abesten dute eta 8 diska dituzte: lehenengoa 1989an atera zuten, eta azkena 2017an, 40. urteurrenean. Gaur egun oraindik plazaz plaza aritzen dira. Gasteizen bizi da eta Budha izeneko tabernaren jabea da. Gasteizko Ahotsak proiekturako elkarrizketatua.

Zintak

APR-001

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data**: 2019-04-08
- **Iraupena**: 38 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Nondik datorkio musikarako grina

- **Erref**: APR-001/006
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:05:58. **Bukatu**: 00:06:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Trikitilaria zuten aita. Igandero aritzen zen trikitixa jotzen.

2. "Joselu anayak" taldearen hastapenak

- **Erref**: APR-001/007
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:08:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Musikaria dira bost senideak. Musikari ibilbideari bakoitzak bere aldetik ekin zion arren, 1977. urtean elkartu eta "Joselu ta anayak" sortzea erabaki zuten. Taldearen izenari buruzko azalpenak ematen ditu.

3. Zergatik abesten duten euskaraz

- **Erref**: APR-001/010
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:11:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Hasieratik erabaki zuten euskaraz kantatzea. Euskararen aldeko aldarrikapen moduan egiten zutela kontatzen du.

4. Lazkaoko barnetegian ikasi zuen euskaraz

- **Erref**: APR-001/012
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:13:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Euskara ez du etxean jaso. Lazkaoko barnetegian ikasi zuen aspaldi. Garai hartako oroitzapen zoragarriak dauzka. Gasteizera itzuli zenean, euskaraz jarduteko zailtasuna gogoan dauka.

5. Kanten hitzak idazteko dituzten laguntzaileak

- **Erref**: APR-001/014
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:15:59

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Ander Gorospe, Arratiako lagunak , idatzi zuen "Ai Anselma" abesti ezaguna. Xabier Olaso eta Juan Jose Gerriko dira kantugintzan laguntzeko prest dituzten beste bi adiskide.

6. Edozein musika-estilo jotzeko gai dira

- **Erref**: APR-001/015
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:15:59. **Bukatu**: 00:17:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Nahiz eta 1989. urtean lehen diska grabatu zutenetik hona teknikoki asko aurreratu den, musikari dagokionean ildo beretik jarraitzen dute. Edozein estilo jotzeko gai dira; entzuleen arabera moldatzen dute musika-estiloa.

7. Urte bakarrean 210 kontzertu ematera iritsi ziren behin

- **Erref**: APR-001/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:19:54. **Bukatu**: 00:21:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Garai batean, dantzalekuetan ere jotzen zutenez, neguan ere izaten zituzten kontzertuak. Gaur egun egoera beste bat den arren, emanaldi asko izaten jarraitzen dute eta gogorra dela aitortzen du.

8. Plazarik plaza jarraitzen dute

- **Erref**: APR-001/021
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:26:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Badira urtero-urtero errepikatzen dituzten plaza batzuk: Zegama, Gasteiz, Gabiri, Idiazabal, etab. Nahiz eta neguan emanaldi gutxiago eman, bestelako lanak izaten dituzte. Tamalez, ezin daiteke musikatik bizi.

9. Orain ez bezala, Araiatik etorri berritan ez zuen euskararik entzuten Gasteizko kaleetan

- **Erref**: APR-001/025
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:33:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskara entzuten du Gasteizko kaleetan eta oso pozik ageri da. Araiatik etorri zenean ez omen zen hori gertatzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com